

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

3021

AGINDUA, 2012ko ekainaren 20koa, Kulturako sailburuarena, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako liburu-funtsak berritu edo/eta handitzeko diru-laguntzak emateko modua arautu eta horretarako deia egiten duena.

Euskadiko liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen indarrez, Eusko Jaurlaritzan kulturaren alorreko eskumena duen sailari dagokio urtez urte bere aurrekontuetan funtsak handitzeko laguntza-programak ezartzea.

Era berean, Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen martxoaren 22ko 45/2011 Dekretuaren arabera, Liburutegi Zerbitzuaren eskumena da Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalari dagozkion egitekoak garatu eta gauzatzea.

Araudi horrekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Irakurketa Sare Publikoaren barruan dauden liburutegietako titularrekin batera, bere gain hartu du liburutegi horiek funtsez hornitzeko ardura, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, erabiltzaileen beharrei behar bezala erantzuteko.

Horregatik guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honek udal liburutegi publikoen arloan eskudunak diren edo alor horretako egitekoak esleituta dituzten Toki Erakundeei eta Udalei 2012. urtean diru-laguntzak ematea arautzen du. Diru-laguntza horiek Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietako liburu-funtsak berritu eta/edo handitzeko izango dira.

Diru-laguntza horiek honako funts hauek erosteko diru-kopuruak izango dira:

- 1.– Liburutegi sortu berrietarako diren dokumentu-sortak.
- 2.– Lehendik dauden liburutegietako funtsak berritzeko izenburuak.

Kasu batean zein bestean, ezinbestekoa izango da diru-laguntzaren % 10a, behintzat, Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratutako obrak erosteko erabiltzea.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Agindu honen bidez araututako diru-laguntzetarako 669.600,00 euro erabiliko dira gehienez.

Zenbateko osoa honela banakatuko da:

- a) 50.000,00 euro, gehienez, liburutegi sortu berrietarako diren dokumentu-sortetarako.
- b) 619.600,00 euro, lehendik dauden liburutegietako funtsak berritzeko. Liburutegi sortu berrietarako diren dokumentu-sortetarako zenbatekoa erabiltzen edo agortzen ez bada, diru hori edo soberakina lehendik dauden liburutegietako funtsak berritzeko erabiliko da.

Agindu honetara bideratutako diru-kopuruak handitu egin ahal izango dira aginduaren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek bitarteko elektronikoz egin ahal izango dituzte eskabideak, kontsultak eta prozedura honetako izapide guztiak.

2.– Izapidetze elektronikoa honako lege-arau hauetan araututa dago: otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua, bide elektroniko, informatiko eta telematikoei administrazio-prozeduretan duten erabilera arautzen duena; 2008ko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa, eta e-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa – PLATEA– ezartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena.

3.– Eskabideak –bertatik bertara edo modu elektronikoan– izapidetzeko argibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak https://www.euskadi.net/y22-izapide/es/contenidos/ayuda_subvencion/12_1lf/eu_dirulag/dirulag.html egoitza elektronikoan aurki ditzakezue.

4.– Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak (bertatik bertarakoa edo elektronikoa) ez du behartzen aurrerantzean ere prozedurako gainerako izapideak egiteko bide bera erabiltzera, eta edozein momentutan alda daiteke aukeratutako bidea.

5.– Eskabidearen ondoko izapideak, bide elektronikoa erabiliz, hemen egin daitezke: <http://www.euskadi.net/nirekudeaketak>.

4. artikulua.– Onuradunak.

Agindu honetako laguntzak jaso ahal izango dituzte, batetik, liburutegi publikoen titularrak diren EAEko udalek, eta, bestetik, EAEko udal liburutegi publikoen arloko eskumenak dituzten edo arlo horretako egitekoak esleitura dituzten toki-erakundeek, baldin eta Euskadiko Irakurketa Publikoko On Line Sarearen barruan badaude.

Ezingo dute diru-laguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zehapen administratibo edo penalik duten erakundeek, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere.

Halaber, ezingo dute agindu honetako diru-laguntzarik eskatu, kasuan kasuko zehapenak ezarritako epean, sexu-bereizkeria dela-eta zehapen administratibo edo penalik duten pertsona fisiko zein juridikoek, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen indarrez jarritako zehapenen ondorioz debeku hori dutenek ere.

Eskakizun hauek ere nahitaez bete behar dira:

1.– Liburutegi sortu berrietarako dokumentu-sortak erosteko diru-laguntzetarako:

a) Lagundu nahi den liburutegiaren eragin-eremuko biztanleen kopurua (betiere, biztanleria erakunde eskatzaileari dagokiona izango da) 3.000koa edo 3.000tik gorakoa izatea.

b) Erakunde eskatzaileak 2012ko edo 2011ko aurrekontuetan diru-atal bat izatea liburutegi sortu berria(k) liburuz hornitzeko, edota 2012an diru-ekarpen hori egiteko konpromisoa hartzea. Gutxieneko kopurua hauxe izango da: agindu honen A eranskinaren arabera bere biztanle-taldeari dagokiona.

c) Diru-laguntza jasoko duten liburutegia(k) Euskadiko Irakurketa Sare Publikoaren barruan sartuta egotea edo horretarako eskabidea eginda edukitzea eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako.

d) Liburutegi horiek 2011ko urtarrilaren 1a eta agindu honetan eskabideak aurkezteko ezarritako azken egunaren artean sortuak izatea eta irekiak egotea, betiere Kultura Sailaren eskutik helburu horretarako –hau da, liburutegi sortu berri(eta)rako dokumentu-sortak erosteko– inolako diru-laguntzarik jaso ez badute.

2.– Lehendik dauden liburutegietako funtsak berritzeko diru-laguntzetarako:

a) Erakunde eskatzailearen 2012ko udal-aurrekontuetan diru-atal bat izatea bere liburutegiko funtsak berritzeko.

b) Diru-laguntza jasoko duten liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko On Line Sarearen barruan sartuta egotea, edo, hor sartzeko eskabidea eginda izatea.

c) Liburutegi horiek eskabideak aurkezteko epean jadanik irekiak egotea, edo, bestela, 2012. urtea amaitu baino lehen irekitzekoak izatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo haren menpeko erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntzaren batzuk eman izana dela-eta, horiek itzultzeko edo zehatzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei laguntzak eman edo ordaindu ahal izateko.

5. artikulua.– Erakunde eskatzaileen betebeharrak eta baldintzak egiaztatzea.

1.– Erakunde eskatzaileak baimena eman ahal izango du laguntzak kudeatzen dituen organoak gainerako datu edo dokumentuak eskuratu edo egiaztatu ditzan, bai bertatik bertarako bidea erabiltzen denean bai bide elektronikoa erabiltzen denean ere, betiere Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenen kalterik gabe.

2.– Azaroaren 11ko 1/ 1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz, honako betekizun hauek egiaztatuko dira, eskabidean txertatuko den erantzukizunezko adierazpen baten bidez:

- Beste edozein administrazio edo erakundek –publikoa zein pribatua izan– helburu berarako ematen dituen diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatuz gero –eta, hala badagokio, eskuratuz gero–, horren berri ematea.

- Erakunde eskatzaileak egiaztatu behar du ez dagoela laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen administratibo edo penal baten pean, edo ez daukala horretarako legezko debekurik.

- Erakunde eskatzaileak eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adieraztea, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela adieraztea.

6. artikulua.– Eskabideak eta formularioak aurkeztea.

a) Deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

b) Eskabideak behar bezala beteriko eskaera-orri normalizatu baten bidez aurkeztuko dira, Herritarrentzako Arreta Bulegoetara, Kultura Sailaren Lurralde Ordezkaritzetara, Eusko Jaurlaritzaren erakunde laguntzaileetara bertaratuta, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4

artikuluaren ezarritako edozein bide erabiliz (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena). Eskabide-eredua agindu honen 3.3 artikuluan adierazitako egoitza elektronikoan eskura daiteke.

Eskabideak bide elektronikoa erabiliz ere aurkez daitezke, zehazki, agindu honen 3. artikuluan adierazitako egoitza elektronikoaren bidez: <http://www.euskadi.net/nirekudeaketak>.

Erakunde eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten moduan. Halaber, erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabiliko da prozedura osoan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

7. artikulua.– Zer dokumentu aurkeztu behar diren eskabidearekin batera.

I. ERANSKINA:

1.– Eskabidea zein modalitaterako egiten den: dokumentu-sortak, liburutegi sortu berrietarako edo lehendik dauden liburutegietako funtsak berritzeko.

2.– Helburu bererako diren beste laguntza batzuen zerrenda, halakorik balego.

Gainera, eskabidea egiten duten erakundeek legez eratutako eta udal liburutegi publikoen arloan eskudun diren udal-erakundeek egiten badute, beren helburuen artean liburutegi-zerbitzu publikoa elkarrekin kudeatzea dagoela egiaztatu beharko dute agirien bidez, zehazki, horretarako eskumena egiaztatzen duen agiri baten bidez, betiere, aurrez aurkeztu ez bada eta balio berberarekin indarrean jarraitzen badu.

8. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzeko organoa.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio agindu honen bidez araututako diru-laguntzak kudeatzeko egin beharrekoak egitea.

9. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean, ohartarazi egingo zaio ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela, betiere aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez.

10. artikulua.– Eskabideen ebaluazioa.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea. Era berean, zuzendaritza horrek osatuko du ebazpen-proposamena eta, ondoren, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari igorriko. Bertan azalduko dira, hala badagokio, erakunde onuradun bakoitzari egokitutako diru-kopurua eta emandako diru-laguntzak modu egokian erabiliko direla ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen diren baldintza guztiak.

11. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa zehaztea.

1.– Dauden diru-baliabideak agindu honetan ezarritako eskakizun eta baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaileen artean banatuko dira.

2.– Liburutegi sortu berrietarako dokumentu-sortak erosteko diru-laguntzen zenbatekoak zehazteko, A eranskinean ezarritakoari jarraituko zaio, betiere, 12.1 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta.

3.– Liburutegiko funtsak berritzeko diru-laguntzen zenbatekoak zehazteko, B eranskinean ezarritakoari jarraituko zaio, 12.1 artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta.

4.– Aurreko hori guztia aplikatu eta gero, onuradunen batek 12.1 artikuluko ehunekoa gainditzen badu, aurrekontuaren gainean onarturiko gehienezko zenbatekoan ezarriko dira diru-laguntzak. Soberakinak gainerako onuradunen artean banatuko dira, B eranskinean ezarritako sistemaren arabera. Jardunbide hori behar adina aldiz errepikatuko da, eta aplikatu eta gero geratzen diren kopuruak aurretik lortutako kopuruei gehituko zaizkie.

12. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoak, mugak, ordainketa eta bateragarritasunak.

1.– Lehendik dauden liburutegietako funtsak berritzeko diru-laguntza gisa jaso beharreko diru-kopurua ezingo da izan, inola ere, onuradunek berek funts propioetatik horretarako jarri dutena baino handiagoa.

Horregatik, B eranskinean adierazitakoa aplikatu ostean ateratzen den kopurua onuradunek berek funts propioetatik jarri dutena baino handiagoa bada, laguntza gisa emango den diru-kopurua murriztu egingo da betekizun horrek markatzen duen mugaraino.

Diru-laguntza justifikatzeko eta likidatzeko dokumentazioan ikusten bada baldintza hori ez dela betetzen, diru-laguntza murriztuko da behar den heineraino.

2.– Liburutegi sortu berrietarako diren dokumentu-sortetarako zenbatekoak esleitzeko orduan, A eranskinean xedatutakoa beteko da. Eranskin horretan populazioaren araberrako taldeak egiten dira eta bakoitzari zenbateko bat esleitzen zaio. Hala ere, onuradunen kopurua handia bada eta eranskinean finkatutako zenbatekoen baturak kontzeptu horretarako dauden baliabideak gainditzen baditu, zenbateko hori hainbanatu egingo da.

3.– 150.000 euro ezarri dira onuradun bakoitzak agindu honen baitan jaso dezakeen gehienezko diru-laguntza gisa, betiere helburu izanik funtsak berritzea. Funts-hornidurarako edo liburutegi sortu berrietarako dokumentu-sortetarako, agindu honen A Eranskinean ezarritakoari jarraituko zaio.

4.– Diru-laguntza ordainketa bakar batean emango da.

13. artikulua.– Bateragarritasunak.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandakoak batera erabili daitezke, baldin eta helburu berbererako badira, eta, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik badago, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

14. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari dagokio, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako ebazpen-proposamena ikusita, aurkeztutako eskabideei buruzko ebazpena ematea. Ebazpen horretan adieraziko da, batetik, onuradun bakoitzari zer diru-laguntza dagokion, eta, bestetik, zer baldintza bete behar diren emandako diru-laguntzak ondo erabiliko direla bermatzeko.

2.– Diru-laguntzei buruzko ebazpena eta jakinarazpena sei hileko epean egingo da, agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

3.– Ebazpena, jakinarazpen gisa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4.– Epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen ondorioetarako.

5.– Dena den, agindu honen 9. artikuluan adierazitakoa gertatuz gero, ebazteko epea etenda geratuko da tramite hark behar duen beste denboraz, jakinarazpena noiz jaso den eta erantzuteko zein epe dagoen kontuan hartuta.

15. artikulua.– Diru-laguntza jasotzen duten erakundeen betebeharrak.

Agindu honetan ezarritakoaren arabera araututako diru-laguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza eman zaiela aditzera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean ez badiote diru-laguntzari espresuki uko egiten, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza agindutako helburu zehatzerako erabiltzea.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Kultura Sailak –beren zereginetan dihardutela– deialdi honen bidez jasotako diru-laguntzei buruz eskatutako informazioa ematea.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.2 artikuluan ezarritako beste edozein betebeharrak.

e) Helburu berbererako laguntzaren bat jaso bada behin eskabidea eginda dagoela, horren berri ematea.

16. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

1.– Diru-laguntzaren agiri bidezko justifikazioa 2012ko abenduaren 31 baino lehen egin behar da.

2.– Justifikazioa egiteko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Kontu-hartzailearen edo idazkari kontu-hartzailearen egiaztagiria –egindako gastuei buruzkoa–, II. eranskinaren arabera.

b) Beste erakunde publiko zein pribatuei xede berberarekin diru-laguntzarik eskatu bazaie eta agindu honetan arautzen diren diru-laguntzetarako eskabidea egiteko unean erabakitzeke bazeuden edo haien egoeraren berririk ez bazen, laguntza horien egoera zein den adierazten duen agiria.

c) Laguntza emateko ebazpenean eskatzen den beste edozein agiri.

3.– II. eranskineko agiri justifikatzaileak Herritarrentzako Arreta Bulegoetara, Kultura Saileko Lurralde Ordezkaritzetara edo Eusko Jaurlaritzaren erakunde laguntzaileetara bertaratuta aurkez daitezke, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

4.– Justifikatu beharreko gastua izango da, gutxienez, honako bi kontzeptu hauen baturak emandakoa: azkenean esleitutako diru-laguntza eta onuradunak egin beharreko gutxieneko

ekarpena. Diru-laguntza justifikatzeko eta likidatzeko dokumentazioan ikusten bada baldintza hori ez dela betetzen, diru-laguntza murriztuko da behar den heineraino.

Eskabideak aurkezteko, bide elektronikoa ere erabili ahal izango da, zehazki, agindu honen 3.3 artikuluan adierazitako egoitza elektronikoa.

17. artikulua.– Diru-laguntza justifikatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak.

1.– Diru-laguntzaren agiri bidezko justifikazioa 2012ko abenduaren 31 baino lehen egin behar da.

2.– Justifikazioa egiteko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Kontu-hartzailearen edo idazkari kontu-hartzailearen egiaztagiria –egindako gastuei buruzkoa–, II. eranskinaren arabera.

b) Beste erakunde publiko zein pribatuei xede berberarekin diru-laguntzarik eskatu bazaie eta agindu honetan arautzen diren diru-laguntzetarako eskabidea egiteko unean erabakitzeke bazeuden edo haien egoeraren berririk ez bazen, laguntza horien egoera zein den adierazten duen agiria.

c) Laguntza emateko ebazpenean eskatzen den beste edozein agiri.

3.– II. eranskineko agiri justifikatzaileak Herritarrentzako Arreta Bulegoetara, Kultura Saileko Lurralde Ordezkaritzetara edo Eusko Jaurlaritzaren erakunde laguntzaileetara bertaratuta aurkez daitezke, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bide erabiliz (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

4.– Justifikatu beharreko gastua izango da, gutxienez, honako bi kontzeptu hauen baturak emandakoa: azkenean esleitutako diru-laguntza eta onuradunak egin beharreko gutxieneko ekarpena. Diru-laguntza justifikatzeko eta likidatzeko dokumentazioan ikusten bada baldintza hori ez dela betetzen, diru-laguntza murriztuko da behar den heineraino.

Eskabideak aurkezteko, bide elektronikoa ere erabili ahal izango da, zehazki, agindu honen 3.3 artikuluan adierazitako egoitza elektronikoa.

18. artikulua.– Baldintzak ez betetzea.

Hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jardueren bestelakoetan erabiltzea.

b) Agindu honetan edo laguntza emateko ebazpenean adierazitako betebeharrak ez betetzea.

c) Diru-laguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean –hala badagokio– adierazitako zenbatekoa epearen barruan ez itzultzea.

d) Xedapen orokorretan nahitaez bete beharreko zat jotako beste edozer ez betetzea.

Ez-betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu

Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horien itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetako 2. artikuluan adierazitako diru-kopuruak handitu ahal izango dira, baldin eta aurrekontuak agortu gabe geratu badira Kultura Sailaren beste laguntza-programa batzuk burutu ondoren edota indarreko legediaren arabera egindako aurrekontu-aldaketen ondoren.

Gehikuntza hori gertatuz gero, aldaketa diru-laguntzak ebatzi baino lehen egin behar da, eta horren berri Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez emango da.

Halaber, aurrekontuaren zuzkiduran gehikuntzarik izanez gero, eutsi egingo zaie liburutegi sortu berrien hornidurarako eta lehendik dauden liburutegi-funtsak berritzeko dauden ehunekoei.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.— Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 20a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

A ERANSKINA

LIBURUTEGI SORTU BERRIETARAKO DOKUMENTU-SORTAK ESKURATZEKO DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA FINKATZEKO IRIZPIDEAK

Biztanle-kopuruaren arabera egin da kontzeptu honetarako banaketa. Horretarako, segidan zehazten diren muga barruan dauden herrien taldeak egiten dira eta jasoko duten diru-laguntza finkatzen da.

Biztanleen kopuruan ez dira zergatik sartu behar erakunde onuraduneko biztanle guztiak, baizik eta diruz lagundu nahi den liburutegiaren eragin-eremuko biztanleak.

<u>Biztanleak</u>	<u>Zenbatekoa (eurotan)</u>
3.000tik 5.000ra	10.000,00
5.001etik 10.000ra	11.000,00
10.001etik 15.000ra	12.000,00
15.001etik 30.000ra	14.000,00
30.001etik 50.000ra	17.000,00
50.001etik 100.000ra	20.000,00
100.001etik gora.	23.000,00

Onuradun guztien zenbatekoen baturak 2. artikuluko a) idatzi-zatian ezarritako kopurua gainditzen badu, zenbateko horiek proportzionalki murriztuko dira, harik eta zenbateko guztien batura dokumentu-sortetarako dagoen zenbatekora iritsi arte.

B ERANSKINA

FUNTSAK BERRITZEKO DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA FINKATZEKO
FORMULA ETA KOEFIZIENTEAK

Kontzeptu honetarako emango den diru-kopurua izango da agindu honen guztizkoari liburutegi berrietarako funtsak (dokumentu-sortak) eskuratzeko kopurua kenduta ateratzen dena. Zenbateko hori onuradunen artean banatuko da –betiere 12.1 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe–, honako formula hau erabiliz:

$$\text{Diru-laguntza} = \frac{\text{DK} * \text{B}}{\text{BB}}$$

FORMULAKO FAKTOREAK:

1.- DK: behin liburutegi berrietarako dokumentu-sortak eskuratzeko kopurua kenduta (betiere, liburutegi berririk sortu bada), agindu honetarako finkatu den diru-kopurua.

2.- B, onuradun bakoitzari dagokion balorea, hau da, P eta IZ faktoreen biderketa.

a) Populazio homologatua (P)

Herri guztiak biztanle-kopuruaren arabera sailkatu ditugu eta herrien P balore homologatua lortu dugu, sailkapen honen arabera:

<u>Biztanleak</u>	<u>P</u>
0tik 1.000ra	1.000
1.001etik 2.000ra	2.000
2.001etik 3.000ra	3.000
3.001etik 4.000ra.	4.000
4.001etik 5.000ra.	5.000
5.001etik 10.000ra.	10.000
10.001etik 15.000ra.	15.000
15.001etik 20.000ra.	20.000
20.001etik 25.000ra.	25.000
25.001etik 30.000ra.	30.000
30.001etik 40.000ra.	40.000
40.001etik 50.000ra.	50.000
50.001etik 60.000ra.	60.000
60.001etik 70.000ra.	70.000
70.001etik 80.000ra.	80.000
80.001etik 90.000ra.	90.000
90.001etik 100.000ra.	100.000
100.001etik 125.000ra.	125.000
125.001etik 150.000ra.	150.000
25.000naka jarraitzen du.	

Adibideak: 3.248 biztanledun udalerri bat 4.000 dituenarekin parekatuko da, eta 54.949 biztanledun beste bat 60.000 dituenarekin.

b) Indize zuzentzailea (IZ)

Jarraian adierazten den koefiziente zuzentzailea aplikatuko da:

<u>Biztanleak</u>	<u>IZ</u>
0tik 3.000ra.	1,6
3.001etik 5.000ra.....	1,4
5.001etik 30.000ra.....	1,2
30.001etik 100.000ra.....	1
100.001etik aurrera	0,8

c) BB: onuradun guztien B baloreen batuketa.